

## Euskara gure ondare bibliografikoaren katalogazioan

Agurtzane JUANENA

Maite LOPETEGUI Itzulita \*\*

**J**AKINA denez, Euskal Herriko Autonomi Estatutuak euskara eta gaztelaren ofizialtasuna onartzen du bere lurraldean eta, lurraldean, eta, ggure hizkuntza den heinean, euskararen babesa eta sustapena aipatzen ditu gainera.

Jarraian EHAEko biblioteketan euskararen egoerari buruzko hainbat gogoeta egiten dira (zehazki, biblioteka baten egituraketan halako garrantzia duen prozesu teknikoaz, hau da, katalogoaren osaketaz), eta, aldi berean, egoera hau hobetzeko hainbat jokabide proposatzen.

Egungo egoeraren deskribapena, nire erreferentzien arabera bederen, honela laburbil daiteke: euskara hutsean katalogatzen hasi den biblioteka espezializatu bat (Euskaltzaindiako Azkue Biblioteka) eta zenbait ataletan euskara erabiltzen duten bi foru-biblioteka (Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako Bibliotekak). Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen biblioteka publikoen sareak laguntza teknikoa (aukeratutako bibliografia) gaztelaraz jasotzen du harengandik. Horietan, denbora gutxi barru, zenbait aldaketa gerta daiteke, izan ere Gipuzkoako Bibliotekari eta Dokumentalisten Elkarteko batzorde batek Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Erapidetzari eskaera egin baitio (1995eko ekainean aurkeztutako txostena) Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Erapidetzari, eta honek gaien izenburuen zerrendaren itzulpena prestatzen ari baita bere biblioteketarako.

Nik dakidala, egun ez dago beste erakunderik (unibertsitateetako I bibliotekarik, espezializaturik...) honelako proiekturik burutzen ari denik, nahiz eta litekeena izan beste ekimen isolatuen bakan batzuk egotea, hala nola HABEko Bibliotekarena edo Xenpelar Dokumentazio Zentroarena. Bestalde, EHAEko katalogo kolektiboa osatzeko ikerketa batzorde bat ere izan zen, Eusko Jaurlaritzaren deialdi baten eraginez 1992an sortu eta hurrengo urtean amaitu zena, eta bertan, gai honi buruz aritu ziren inolako akordio finkorik lortu gabe.

Arestikoak zera erakusten du: argi dago hainbat estamentutan gai honekiko ardura egon dela eta orain ere badagoela, baina ez da modu egoki batean hori bideratzerik lortu katalogafilantetan euskararen normalkuntzari erantzun koordinatu eta orokor bat emateko. Lerro hauen asmoa hain zaila dirudien gai bati konponbidea ematea ez bada ere, saiatu egingo naiz zenbait ideia ematen bederen.

\* Koldo Mitxelena Kulturunea.

\*\* Traducido por Maite Lopetegui. El original en español se publicó en *Aldeezkaria*, n. 4, diciembre 1996 / Artikulu hau argitaratuta dago gaztelaraz *Aldeezkarian*, 4 zk., 1996 abendua.

## 1. Helburua

Euskara katalogazioan erabiltzeaz ari garenean, ezinbestekoa da helburua zein dugun argi ta garbi mugatzea batetik, eta , bestetik, ikustea nola bateratu helburu hori bereak ez diren bete-behar teknikoekin, erabilera hori bermatzeko baliabideak kontutan hartzeaz gainera.

Nire ustez, erraza da helburua adieraztena: euskararen erabilpenaren nomalkuntza. Honek esan nahi du euskarak eta gaztelarak maila berean egon behar dutela, maila koalitatiboan guxtienez, nahiz eta, gure errealitate soziolinguistikoa kontutan izanik, maila koantitatiboan horrela ez izan.

Euskararen erabilpenaren nomalkuntza maila desberdinetan eman daiteke, euskara hutsean katalogatuzetik, katalogazio elebiduneraino. Biblioteka jakin batzuetan, Azkue Bibliotekan, beste erakunde edo euskal komunitateetako biblioteka batzuetan (HABEko biblioteka, euskal udalerrietako bibliotekak) pentsa liteke euskara hutsean katalogatzea. Euskaldunak ez diren erabiltzaileen kopuruaren ehuneko handia duten biblioteketan, biblioteka publiko handi samarren kasuan adibidez, nire ustez elebitasuna da ikuspuntu sozialetik ikusita irtenbiderik egokiena, eta azpimarratu nahi nuke irtenbide hori egokia dela, bai ikuspuntu tekniko edo bibliotekariotik ere.

Katalogazio elebiduna gaur egun horretarako gain diren erakundeek onartzen dute, maila teorikoan zein praktikoa. Lehen mailari dagokionez, IFLAko argitalpen ofizial batetik ateratako testua itzuli eta tratranskribatuko dut jarraian:

72

“Hainbat kasutan, hizkuntza ofizial bat baino gehiago duten herrietan bereziki, sarrera ematearen ardura duen erakunde katalogatzaileak izenburu uniforme beraren aukerako forma bat edo gehiago erabaki dezake eta estatus berdina edo paraleloa izateagatik onartzen dira. Egoera hau sarriago gertatzen da izen ofizialaren estatusa konpartitzen duten hizkuntza bat baino gehiago duten erakundeek kasuan eta hizkuntza desberdinetan forma konbentzionalak izan ditzaketen klasiko anonimoen izenburuen kasuetan. Halakotetan, erakunde katalogatzaileak sarrera bat baino gehiago sor dezake, izen horren hizkuntza bakoitzeko formari dagokiona, alegia. (...) Izenburu paraleloak erabakitzen ez dituzten erakunde katalogatzaileek beste hizkuntz formak beste aukerako izenbururen modu berean erabil ditzakete eta erreferentzi ohar gisa erregistratu (tracing-a)”<sup>1</sup>.

Bigarren mailari dagokionez, Kanada, Belgika eta Suitzako biblioteka nazionalen jokaeren berri daukagu. Kanadako Biblioteka Nazionalak (600 biblioteka konektatuak eta Amicus sisteman katalogatutako 11 milioi erregistro) frantsesa edo ingelesa erabiltzen du dokumentuaren hizkuntzaren arabera, bai deskribapen bibliografikoan bai sarrera-puntuen forman. Dokumentu elebidunen kasuan, hizkuntza bakoitzaren proportzioa antzekoa bada, erregistroa bikoiztu egiten da. Gaien izenburuak kasu guztietan bi hizkuntzetan egiten dira<sup>2</sup>.

1. FIAB. Grupo de Trabajo sobre un Sistema Internacional de Autoridades. *Directrices para las entradas de autoridad y referencia*. Aprobadas por los Comités Permanentes de la Sección de Catalogación de la IFLA... Madrid: Anabad, 1993. ISBN 84-88716-05-2, 16-17 orld.

2. *Descriptive cataloguin manual = Guide de catalogage descriptif*. National Library of Canada, Bibliothèque Nationale du Canada. (Ez dakit argitaratuta dagoen, nik korreoz jaso dut).

“Bibliothèque Royale Albert 1er”-k, Belgikako bibliografia nazionalaren arduradunak, nederlandez egiten ditu hizkuntza germaniarretan egindako dokumentuen oharra eta frantsesez hizkuntza erromanikoetan idatzitakoena. Thesaurus hirueledun bat dute, ingeles, frantses eta nederlandez. Azken gai honi buruzko artikulu bat argitaratu dute Paula Goosens eta Yves Deneulin-ek<sup>3</sup>. Hautemangarria da, halaber, komunitate flandestarrak bere katalogoa nederlandera hutsean daukala jakitea.

Azkenik, Suitzako Biblioteka Nazionalak hizkuntza germaniarretan idatzitako dokumentuen deskripzioak alemanez egiten ditu eta hizkuntza erromanikoa frantsesez. Egile-sarrerak alemanez egiten dira. Hala ere, beraiek diotenez, berandu baino lehen egile-fitxategi eleanitzak eskaintzeko konpromezua hartu dute.

## 2. Garapen-mailak

Katalogazio-prozesuak bi eragiketa mota biltzen ditu: bata, erabat deskriptiboa (deskribapen bibliografikoa) eta bestea, dokumentua berreskuratzea helburu duena, sarrera-puntuak erabakitzea. Euskaraz erabat katalogatzeak eskatzen du maila biak betetzea, eta hori, mailaz maila egin daitekeen zerbait da.

Hasteko, mailarik errazena deskribapen bibliografikoa da, hitz-kopuru murriztago bati dagoiolako (deskribapen fisikoa, oharra eta zenbait interpolazio), eta gainera horiek ez dutelako egile-sarrerarik sortzen. Horixe da Koldo Mitxelena Kulturuneko Bibliotekan egiten dena (120.000 erregistro dituen katalogo informatizatu bat eta horretan oinarritutako bi katalogo inprimatu argitaratuak). 1986an informatizazioa hasi zenetik euskaraz egiten dira euskal dokumentuen deskribapenak eta gazteleraz gainontzekoak.

Hala ere, lanaren koherentziagatik, hala nola erabiltzaileari izenak, gaiak eta abarren moduko bilaketa-tresna garrantzitsuak esakaintzearen, sarrera-puntuen gaiari eutsi behar diogu. Gaien izenburuekiko arazo horretan, hain zuzen ere, topatu dugu premiarik handiena eta zenbait saio egin dira jada.

Nazioarteko esperientziak erakutsi digu arazo honetan ez dagoela erabat originala den ekoizpenik: zerrenda gehienak, aldi berean, beste batzuen zordun dira. Zalantzarik gabe, beste guztien gainetik Washingtoneko Kongresuko Bibliotekako zerrenda nabarmentzen da (LCHS, Library of Congress Subject Headings). Ingeleseko entzutetsuena izateaz gainera, beste hizkuntzetako zerrenda garrantzitsuenetan ere eragina izan du.

Badago bertsio hispanoamerikar bat, Lista de encabezamientos de materia para Bibliotecas, Carmen Rovirak eta Jorge Aguayok bildutakoa. Franseseko nagusia, Répertoire de vedettes-matière, Quevec-eko Laval Unibertsitatekoa. Kataluniako zerrenda “Library of Congress”ekoan eta beroneen bertsio hispanoamerikarrean oinarrituz osatu dute, aldiz Sevillako Biblioteka Unibertsitariokoak Kongresuko Bibliotekako zerrendan eta Laval-ekoan oinarritu dira.

3. Paula GOOSENS y Yves DENEULIN. *L'elaboration à la Bibliothèque Royale de Belgique d'une liste trilingue de mots sujet sur base des LCSH (Library of Congress Subject Headings)*. (Ez dut argitalpeneko daturik ezagutzen. Aurrekoan bezala, korreoz jasotako kopia bat daukat).

Espainiako Biblioteka publiko guztientzat ezinbesteko erreferentzia da *"Lista de encabezamientos de materia para las bibliotecas públicas"*<sup>4</sup> delakoa. 1997ko Unescoren Thesaurusean oinarriturik 5000 sarrera ditu eta biblioteka txiki edo ertainetarako (25.000-30.000 liburukoak) nahikoa dela uste da. Hala ere, Manuel Carrión Gútiéz-ek ederki adierazten duen bezala: "ezin dezakegu, besterik gabe, Espainiako gaien izenburuen zerrenda dela esan, horretarako zabalagoa izan beharko baitu, datuen tratamendu elektronikoari begiratu eta bibliografia nazionalaren ekoizpen eta ekoizle izan aldia berean."<sup>5</sup>

Azken hori da euskarara itzuli dena [Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultur Sailaren aginduz UZEIk itzulitakoa eta 1993an argitaratua<sup>6</sup>; eta beste itzulpen bat, argitaratu gabea baina udal liburutegietan zabalduta dena, Eusko Jaurilaritzaren Liburutegien Erapidetzaren aginduz Labayru lkastegiak egina<sup>7</sup>, eta itxura denez oraingoan HAEEko teknikariek berrikusiko dutena, Eusko Jaurilaritzaren eskaera bat dela medio. Arestian aipatu dudana bezala, Gipuzkoako Bibliotekari eta Dokumentalisten Elkartearen ekimenari erantzun nahi dio, hartzaileak Eusko Jaurilaritzaren sareko bibliotekak izango direlarik.

Aukera honek buruzkokiko balorazioa alde batera utzita, nabarmen ikusten dudana zera da: halako garrantzia duen erabaki bat (beste zerrenda baten itzulpena eta egokitzapena ere zeregin korapilatsu eta pisua da) ez litzateke EHAEko biblioteka guztien, (biblioteka publiko garrantzitsuak, unibertsitarioak, espezializatuak...) eta abarren, beharrak barnebilduko dituen planteamendurik gabe hartu behar, eta halaber, ez luke ahaztu behar gure Komunitate Autonomotik kanpo dauden Euskal Herriko beste biblioteka batzuen lankidetzak.

74

Bestalde, sarrera-puntuaren arazoa ez da gaien izenburuekin amaitzen. Oraindik ere geratzen dira pertsona-izenak (latinezko eta grekozko izen klasikoak, erlijio-izenak, historikoak...), erakunde-izenak, leku-izenak, izenburu uniformeak...

Formaren auziari dagokionez, izenburuen zerrenda alfabetikoa osatzeko erabakita egon beharko du, horrenk, gauzatzeko gauzatzeko orduan izen bereziak erabiltzera behartzen baitu. (Hurbileko erreferentzia bat Kataluniako Biblioteketan daukagu, horretarakoeta han "Gran Enciclopedia Catalana" erabiltzen dutelarik. Guk Lur entziklopedia eta Eusenor proiektua daukagu.)

Fitxen hizkuntza erabakitzeko irizpideari buruz, aldiz, dokumentu jakin bakoitza zein hizkuntzatan katalogatu behar den erabakitzeko alegia, Kanadako Biblioteka Nazionalaren hizkuntz politika ereduagarria da, nire ustez, bai bere hizkuntz tratamendu bidezkoarengatik, bai tratamendu teknikoaren zorrotzasunagatik, ederki aztertu baititu zeregin katalogatzailean ager daitezkeen kasu ugariak.

Aurreko guztia Marc formatoan agertuko da eta katalogoa eusten duenren euskarri diren bibliotekarako kudeaketa-sistema informatikoek baldintzatuta egongo da. Horregatik sistema

4. *Lista de encabezamientos de materia para las bibliotecas públicas*. 2.ª ed. rev. Madrid: Dirección General del Libro y Bibliotecas, 1987. ISBN 84-505-2836-4.

5. CARRIÓN GÚTÍEZ, Manuel. *Manual de bibliotecas*. [1.ª reimp. corr.]. Salamanca; Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 1988. ISBN 84-86168-26-0, 227-228 orld.

6. *Liburutegi publikoetako gaien izenburuen zerrenda*. Itzultzailea, UZEI. [Bilbao]: Bizkaiko Foru Aldundia, Kultura Saila, L.G. 1993. ISBN 84-7752-101-8.

7. *Biblioteketarako gaiburuen zerrenda*.

horien egokitasuna gai hau kontutan izanik neurtu beharko da aldi berean, beronenhorren izaerak lehentasunezko gaia duen gaia bihurtzen baitu.

### 3. Eragileak

Arlo bibliotekarioko hainbat erakundek egon bide dua euskararen erabilpenaren normalkuntzan interesaturik, baina hala ere nabarmena da zeregin honetan arduraren nagusia Eusko Jaurlaritzari dagokiola, duen aginpide eta mailagatik. Berak dauka etorkizuneko euskal sistema bibliotekarioaren osagaiak biltzeko eta lideratzeko betebeharra.

Zalantzarik gabe, katalogazio elebiduna honako proiektuotan gauzatu beharko litzateke, oinarritzekoak bait dira: euskal bibliografia nazionalan eta gure ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboan. Elebitasunaren xedean oinarrituz helburu hauek gauzatzen hasteko oraindik ere garai gabiltzala uste dut.

Gaiburuaren zerrendari buruz hitzegiterakoan Manuel Carrión Gútierez adituaren testu bat transkribatu dut; bertan, gaztelerako gaien izenburuen zerrenda, dagokion bibliografia nazionalaren ekoizle eta aldi berean ekoizpen izateko premia planteatzen zuen. Eskuarki, planteamendu hori onartu egiten da hizkuntza dokumentalen egituratzeaz teorizatzen denean: horiek aurrekoak eta, bide batez, ondorengoak, aldeztuak pentsatuak eta eguneroko praktikan probatuak izan behar dutela esan ohi da. Komenigarria litzateke, beraz, gaienak euskaratzea bezalako asmo bat naturalki dagokion inguruan ezartzea.

Egun, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailaren Liburu eta Biblioteken Erapidetzak bere sareko biblioteketan biblioteka publiko horietako fondoak handiagotzen doan "a aukeraturako bibliografia" zabaltzen du, biblioteka publiko horietako fondoak handiagotzeko obrak horiek katalogatuta ematen dituenak bidaltzen direlarik. Bibliografia hori izan daiteke katalogazio elebiduna hasteko oinarria, izan ere ez dubaitu zailtasun tekniko handiegirik eta euskararen erabilpenaren normalkuntzan sektorerik interesatuenetako bati zuzentzen baitzaio.

Horretarako ez litzateke inbertsio ekonomiko handiegirik egin behar, ez baitago euskaraz katalogatzeko aurrekontu osagarriak bilatzen ibili beharrik. Jakin beharra dago, besterik gabe, zein errekurtso ekonomiko daukagun katalogatzeko, eta horiek bi hizkuntzen artean banatuko direla erabaki. Aski dira euskaraz eta gazteleraz katalogatzeko gaitasuna duen lan-talde bat eta beronenlan hori agintzen duen erakundeko hizkuntza normalkuntzarako teknikarien laguntza. Lana egiteko denbora apur bat luzatzen bada ere, ez du zertan modu esanguratsu batean aurrekontu orokorra aldatu behar. Hauxe da, bederen, Koldo Mitxelena Kulturuneko Bibliotekan daukagun esperientzia.

Gai honen harira, eta ez honengatik bakarrik, ezinbesteko da beren esperientzia ekartzeaz gain, dituztenberen errekurtsoak konpartitzeko prest dauden beste biblioteken lankidetzaren kontutan izatea (Euskaltzaindia, Foru Bibliotekak...). Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren kontsultarako erakunde ofiziala euskara gaitetan Euskaltzaindia izanik, logikoa dirudi horrela onartua izatea baita honetan ere.

Euskararen erabilpenaren normalkuntza eta biblioteken arteko lankidetzaren oso lotuta dauden gaiak dira. Espero dezagun luzaz ez atzeratzea.